

GINARRI ESPEZIFIKOAK, ZAMUDIOKO GAZTEENTZAKO ETXEBIZITZA ALOKATZEKO LAGUNTZAK ARAUTZEKO

1. artikulua. – Xedea

Oinarri hauen xedea da Zamudion erroldatutako 18 eta 35 urte bitarteko pertsoneri etxebizitzaren alokairurako laguntzak emateko baldintzak arautzea.

Diruz lagunduko da Zamudioko udalerriko etxebizitza aske bat alokatzeagatik ordaindutako errentaren ehuneko bat, oinarri espezifikoko hauetan ezarritako baldintzen arabera.

2. artikulua.– Diruz lagun daitekeen aldia

Diruz lagunduko dira 2025ean zehar ohiko etxebizitzaren alokairuagatik ordaindutako errentak, baldin eta dirulaguntza arautzen duten oinarrietan ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

3. artikulua. – Onuradunak eta errentan hartutako etxebizitzak.

1. Dirulaguntzen onuradun izan daitezke ohiko etxebizitzaren errentamendu-kontratu bat —banaka edo beste batzuekin batera— sinatua duten pertsona fisikoak, baldin eta eskatzen diren baldintza guztiak betetzen badituzte.
2. Kontratuaren titularraren kargura emantzipatu gabe dauden adingabeek ez dute errentamendu-kontraturik sinatu beharrik izango.
3. Oinarri hauen eta dagokion deialdiaren ondorioetarako, bizikidetzaren unitate bat hartuko da etxebizitza batean modu jarraituan bizi eta egonkortasuna lortu nahi duen pertsona edo pertsonen multzoa, baldin eta etxebizitza horren alokairua diruz lagundu nahi bada, pertsona horien guztien arteko harremana edozein dela ere.

Bizikidetzaren unitate motak: A, B eta C.

A. Pertsona bakarrekoa: pertsona bakarra agertzen denean kontratuaren titular gisa, eta pertsona hori bakarrik bizi denean alokatutako etxebizitzan; baita guraso bakarreko unitateak ere, hau da, guraso bakarra eta bere ardurapeko seme-alabak.

B. Pertsona bat baino gehiago direnean bizi diren etxebizitzaren kontratuaren titular, baina ez daudenean ezkondua eta ez daudenean izateko bikote gisa izena emanda.

C. Pertsona bat baino gehiago badira etxebizitzaren kontratuaren titular gisa agertzen direnak eta ezkondua edo izateko bikote gisa inskribatuta badaude.

Dirulaguntzen onuradunak izan ahalko dira deialdia argitaratzen den egunean eta dirulaguntza jaso daitekeen aldian Zamudion alokairu-kontratu baliadun baten bitartez alokatutako etxebizitza batean bizi direnak, Zamudion erroldatuta daudenak eta, gainera, oinarri hauen 4. puntuan laguntza lortzeko adierazitako betekizunak betetzen dituztenak.

4. artikulua.- Betekizunak

1. Eskatzaileak 18 eta 35 urte bitartean izatea dirulaguntzaren xede den aldian. 36 urte bete baino hilabete lehenagora arteko laguntza bakarrik ordainduko da.
2. Hiri-errentamenduei buruzko azaroaren 24ko 29/1994 Legearen eta ondorengo aldaketen arabera egindako etxebizitza alokatzeko kontratu baten titularra izatea.
3. Kontratuak gutxienez urtebeteko iraupena izan beharko du, eta laguntzak irauten duen aldian egon beharko du indarrean, hau da, 2025eko urtarrilaren 1etik 2025eko abenduaren 31ra bitartean (aldi horretan sinatuta egon daiteke, edo 2025eko urtarrilaren 1a baino lehen, betiere aldi horretan indarrean jarraitzen bada). Kontratuak diruz lagundutako epean amaitzen edo hasten bada, kontratua indarrean dagoen aldiari dagozkion dirulaguntzak jasoko dira.

Bizikidetzaren unitatea osatzen duten pertsona guztiek titularkide gisa agertu beharko dute dagokion errentamendu-kontratuan, salbu eta kontratuaren titularren baten kargura emantzipatu gabe dauden 18 urtetik beherakoek.

4. Dirulaguntzaren xede den etxebizitzaren erroldatuta egotea dirulaguntza jaso daitekeen aldian, eta etxebizitza hori ohiko etxebizitza iraunkorra izatea.
Errentamendu-kontratuaren titularrak bakarrik egon beharko dira etxebizitzaren erroldatuta, baita aurreko horien kargura emantzipatuta ez dauden 18 urtetik beherakoak ere.
Kanpoko pertsonaren bat erroldatuta baldin bada, eta errentamendu-kontratuaren titularretako edozeinen baimenarekin erroldatu ez bada, baldintza hori bete dela ulertuko da biztanleen erroldan baja ematen bazaio.
5. Alokatu beharreko etxebizitzek, halaber, baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) Alokaturako etxebizitzak Zamudion egon beharko du eta dagokion bizigarritasun-lizentzia izan beharko du.
- b) Etxebizitzak udal-erroldan alta emanda egon behar du. Zamudioko Udalak egiaztatuko du hori.
- c) Salbuespen dira:
 - Sustapen publikoko babes ofizialeko etxebizitzak (azpierreantamendua barne).
 - Azpierreantamenduak.
 - Etxebizitza gisa erabilitako lokalak, baldin eta hirigintza-araudiak eskatutako bizigarritasun-betekizunak betetzen ez badituzte.
 - Aldi baterako etxebizitzak.

Etxebizitza-aldaketa onartuko da Zamudio barruan, baldin eta beste kontratu bat sinatzen bada eta oinarri hauetan laguntza emateko ezarritako gainerako betekizunak betetzen badira.

6. Estatu osoan etxebizitza ez izatea jabetzan, edo azalera- edo gozamen-eskubidean. C motako bizikidetzaren unitatean dagoen beste pertsonari ere betekizun hori eskatuko zaio.
Betekizun hori salbuespen egongo da eskatzailea jaraunspen edo dohaintza bidez eskuratutako etxebizitza baten edo batzuen titularkide denean, baldin eta titularkidetasun-ehuneko batek ere ez bada gainditzen % 50 eta etxebizitzaren

partaidetzen balioa ez bada 75.000 euro baino handiagoa. Dirulaguntzaren onuradun izan daitezke etxebizitza baten % 50 baino gehiagoren titularrak, honako kasu hauetan:

1. Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak, segurtasun-arrazoiengatik etxebizitza utzi behar izan dutenak.
2. Izatezko bikotearen banantze-, dibortzio- edo iraungitze-prozesu baten ondoren, etxebizitza judizialki beste ezkontidearen familia-egoitza gisa adjudikatzen denean.

7. Etxebizitza alokatzen duen pertsonarekin edo errentatzailearen bizikidetzta-unitateko edozein kiderekin odol- edo ezkontza-ahaidetasuneko hirugarren mailara arteko familia-loturarik ez izatea.

8. 2025. urte fiskalean urtean 3.000 eurotik beherako diru-sarrerarik ez izatea.

Gainera, 2025. urte fiskalean ezin izango ditu honako diru-sarrera haztatu hauek gainditu:

- 30.840,00 euro eskatzaile bakoitzeko (A eta B motako bizikidetzta-unitateak).

- 61.680,00 euro, bi kideen artean, familia-unitateen kasuan (C motako bizikidetzta-unitateak).

Familia ugarien edo guraso bakarreko familien kasuan, muga horiek % 20 handituko dira: 37.008,00 euro eta 74.016,00 euro, hurrenez hurren.

Diru-sarreraren baldintza betetzat jo ahal izateko, baldintza hauek bete beharko dira:

- Kapital errenten ondoriozko etekin gordinak urtean 601,10 euro baino handiagoak ez izatea.

Sarrerak:

2025eko PFEZren aitortpena hartuko da kontuan:

-Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitortpena egin duten pertsonak. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zerga-oinarri orokorra eta aurrezkiaren oinarria zenbatuko dira.

-Errentaren gaineko zergaren aitortpena egin behar EZ duten pertsonen kasuan, honako diru-sarrera hauek hartuko dira kontuan:

- a) Pentsiodunen edo beka, prestazio edo sorospena (Gizarte Ongizateko laguntzak barne) jasotzen dutenen kasuan, aipatutako ekitaldiari dagozkion ziurtagiri horiek.
- b) Pentsioen eta langabezia-sorospenen kasuan, baita kargarik gabeko dieten kasuan ere, kontzeptu guztiengatik egiaztatutako diru-sarrera gordinen % 100.
- c) Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitortpena egitera behartuta ez dauden etxeko langileen kasuan, laneko diru-sarrerak egiaztatu beharko dituzte, PFEZren atxikipenei buruzko ziurtagiri ofizialaren bidez (10T ereduak).

Halako ziurtagiririk ez badago, honako hauek onartuko dira froga-balio bera duten agiritzat:

- Lan-kontratuaren kopia, ondoren eman edo formalizatu bada, soldata egiaztatzeko.
- Diru-sarreraren edo soldata ordaindu izanaren bankuko agirien kopia, enplegu-emailearen izenarekin.
- Enplegu-emaileak sinatutako soldaten ordainagirien (nominen) kopia.
- Enplegu-emailearen edo -emaileen zinpeko aitortpena, horien zenbatekoei buruz.

Banandutako/dibortziatutako pertsonak eta alargunak

Banandutako, dibortziatutako eta alargundutako pertsonen diru-sarrerak zehazteko, baita izateko bikoteen kideenak ere, haietako bat hilez gero edo bikotea deseginez gero, eta egiaztatu beharreko diru-sarrerak bikotea edo bikote-egoera indarrean zegoen aldi batekoak izanez gero, honako irizpide hauen arabera egingo da:

- a) Araubide ekonomikoa ondasun-banaketako baldin bada, eskatzailearengandik datozen diru-sarrerak bakarrik hartuko dira kontuan.
- b) Gainerakoetan, senar-emazteen edo izateko bikotearen diru-sarreraren % 50 zenbatuko da.

Era berean, egiaztatu beharreko diru-sarrerak pertsonak bananduta edo dibortziatuta zeuden aldi bati dagozkionean, diru-sarreraren zenbateko osoa kalkulatzeko, ezkontidearen edo izateko bikotekidearen aldeko elikagaiengatiko urteko kuotei eta konpentsazio-pentsioei dagozkien zenbatekoak kenduko dira, baita hileko hipoteka-kuoten zenbatekoa ere.

5. artikulua.- Bateragarritasuna eta bateraezintasuna

1.- Dirulaguntza honakoekin bateraezina izango da:

- a. Beste erakunde batzuek emandako laguntzak edo dirulaguntzak, besteak beste, GAZTELAGUN programak edo Emantzipa programak emandakoak.
- b. Alokairuko babes publikoko etxebizitza bat izatea.
- c. Etxebizitzaren gastuetarako prestazio osagarria (EGPO), etxebizitzarako prestazio ekonomikoa (EPE) eta alokairu-gastuak estaltzen laguntzen duten udalaren edo beste edozein administrazio edo erakunde publikoren laguntzak jasotzea.
- d. Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 44. artikulua 2.a apartatuan aipatzen diren alokairu-gastuei lotutako gizarte-larrialdiko laguntzak (GLL) jasotzea.

6. artikulua.- Aurrekontu-partida eta -kreditua

1500 48003 Etxebizitza alokatzeko dirulaguntzak.

Aurrekontu-kreditua: 30.000 €

7. artikulua.– Diruz lagun daitekeen gehieneko zenbatekoa

Eskaera guztiak ezin badira horretarako esleitutako aurrekontu-kredituarekin ordaindu, proportzionalki hainbanatuko dira subjektu onuradun bakoitzari dagozkion zenbatekoak.

Gehienez ere, dirulaguntza errentaren % 50 izango da; kontratu bakoitzeko 300 euro hilean, gehienez.

B eta C bizikidetzaren unitateetan, dirulaguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko, errentamenduaren hileko errenta errentamendu-kontratuaren titularkideen kopuruaz zatituko da. Kopuru hori hartuko da kontuan errenta gisa.

8. artikulua. - Eskaerak eta dokumentuak entregatzeko modua

Eskaerak honela entrega daitezke:

- Online: Zamudioko Udalaren egoitza elektronikoaren bidez: horretarako, eskatzaileak baliozko ziurtagiri elektronikoa izan beharko du.
- Aurrez aurre: Udalaren Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan (HAZ).
- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4. artikuluan ezarritako beste edozein bitartekoren bidez.

Eskatzaileek eskaera eta deialdiarekin batera onartutako eranskinak entregatu beharko dituzte, baita honako dokumentu hauek ere:

- A. Familia-liburuaren fotokopia, adin txikikorik egonez gero.
- B. Errentamendu-kontratuaren fotokopia, titularrak diren eta bizikidetzaren unitatea osatzen duten pertsonen sinatua.
- C. 2025. urtean zehar etxebizitza alokatzeagatik errentatzaileari egindako ordainketa guztien banku-frogagiriak.
Ohiko etxebizitzaren alokairu-kontratuan errentatzailearen kontu-zenbakia jasota ez badago, kontuaren titularra dela egiaztatzeke ziurtagiria entregatu beharko da, ziurtatzeko ordainketa dagokion kontu-zenbakian egin dela.
- D. Jabetza Erregistroaren ziurtagiria, adierazten duena etxebizitzarik ez duela jabetzan, jabetza soilean, gozamenean edo azalera-eskubidean. Ziurtagiria eskaera egin baino 30 egun lehenago emana izan beharko da.

Baldintza hori betetzeaz salbuetsita dauden kasuetan, hau entregatu beharko da:

1. Edozein ehunekoren titularrak (jabetzan, jabetza soilean, gozamenean edo azalera eskubidean, eta, judizialki, bikotearen beste kideari familia-bizileku gisa esleitu bazaio banantzearen, dibortzioaren edo izatezko bikotea amaitu ondoren) beste ezkontideari etxebizitzaren erabilera esleitu zaiola ziurtatzen duen hitzarmen arauemailea eta banantze- edo dibortzio-epaia erantsi beharko ditu, edo

Eusko Jaurlaritzak izatezko bikotea amaitu dela egiaztatzen duen ziurtagiria.

2. Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen kasuan, egoera hori egiaztatzeko, honako ziurtagiri hauetako edozein erabili beharko da:
 1. Genero-indarkeria eman dela egiaztatzen duen epai judiziala.
 2. Biktimaren aldeko babes-agindua.

Epaia eta babes-agindua interesdunak dirulaguntza eskatu aurreko bi urteetan emandakoak izan beharko dira.

3. Mugikortasun urri iraunkorra duten desgaituen kasuan, egoera hori egiaztatu beharko dute Foru Aldundiaren ziurtagiriaren bidez. Gainera, bizi diren etxebizitza apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuan (hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituen) ezarritako sarbideei eta igogailuei lotutako baldintzak betetzen ez dituen eraikin batean dagoela egiaztatzeko, hori egiaztatzen duen txosten teknikoa entregatu beharko dute.
4. Etxebizitzak bizigarritasun-baldintzak betetzen ez baditu, hori egiaztatzeko txosten teknikoa eman behar da.
5. Etxebizitza bat jabetzan, jabetza soilean, edo azalera eskubidea edo horren gaineko gozamina % 50 baino gutxiagokoa izanez gero, eta beste pertsona edo bizikidetzaren unitate batzuen ohiko bizileku iraunkorra bada, bertan bizi diren pertsonen errolda-ziurtagiria entregatu beharko da.
6. Adjudikatu bada, ohiko bizileku iraunkorra zen etxebizitza adjudikatze agiri judizialaren edo notarioaren kopia, eta zinpeko aitortpena, etxebizitza hori hirugarren mailarainoko odol- edo ezkontza-ahaidetasunik ez duen pertsona bati adjudikatu zaiola egiaztatzeko.

E. Eskatzaileen diru-sarreraren ziurtagiria, hurrengo paragrafoetan jasotako kasuen arabera.

PFEZa aitortu bada edo aitortzea beharrezkoa bada, honako hau entregatu beharko da:

1. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren egindako aitortpenaren fotokopia (oinarri espezifikotik eta deialdian adierazitako aldikoa).
2. Kotizazio gabeko prestazioak jasoz gero, horien ziurtagiriak ere entregatu beharko dira.

PFEZa aitortu behar ez bada (eta aitortpena egin ez bada), dokumentu hauek entregatu beharko dira:

Kasu guztietan:

- a) Foru Ogasunaren ziurtagiria, dagokion ekitaldiko PFEZaren aitortpena aurkeztu behar ez dela egiaztatzeko.
- b) Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiak emandako lan-bizitzaren ziurtagiria.

Gainera, hala dagokionean:

- ii. Besteen kontura lan egiten duten langileen kasuan, enpresak edo enplegu-emaileak emandako dokumentua (10 T eredu), ekitaldi horri dagozkion kontzeptu guztiengatik jasotako diru-sarrera gordin guztiak jasotzen dituen.
- iii. Pentsiodunen edo beka, prestazio edo sorospena (Gizarte Ongizateko laguntzak barne) jasotzen dutenen kasuan, aipatutako ekitaldiari dagozkion ziurtagiri horiek.
- iv. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitortpena egitera behartuta ez dauden

etxeko langileen kasuan, laneko diru-sarrerak egiaztatu beharko dituzte, PFEZren atxikipenei buruzko ziurtagiri ofizialaren bidez (10T eredua). Halako ziurtagiririk ez badago, honako hauek onartuko dira froga-balio bera duten agiritzat:

1. Lan-kontratuaren kopia, ondoren eman edo formalizatu bada, soldata egiaztatzeko.
2. Diru-sarreraren edo soldatak ordaindu izanaren bankuko agirien kopia, enplegu-emailearen izenarekin.
3. Enplegu-emaileak sinatutako soldaten ordainagiriaren (nominen) kopia.
4. Enplegu-emailearen edo -emaileen zinpeko aitortpena, horien zenbatekoei buruz.

F. Erantzukizunpeko aitortpena, ondoren zehazten diren datu guztiak jasoko dituen eta eskaerarekin batera entregatu beharko dena, behar diren gainerako dokumentuekin batera.

- Eskatzaileak osatzen duen bizikidetzaren mota; errentamenduaren xede den etxebizitzaren biziko diren pertsonak; etxebizitzak bigarren oinarrian ezarritako gutxieneko baldintzak betetzen dituela eta eskatzaileak oinarri hauetan eta dagokion deialdian ezarritako baldintzak betetzen dituela.

- Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan onuradun izateko ezarritako debekuetan ez egotea.

- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistatik Gabeko Bizitzarako Legearen testu batekina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 3.1 artikuluan jasotako diskriminazio anizkoitzeko faktoreengatik edo sexuagatik diskriminatzailea den jarduerarik egin ez izana, eta sexu-diskriminazioagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik zigor administratibo edo penalik jaso ez izana, dagokion zehapenean ezarritako aldian.

- Aldi berean, kontzeptu bereberetan eragina duen beste edozein erakunde edo organismo ofizialek kudeatutako dirulaguntzarik edo laguntzarik ez jasotzea.

- Alokairuan babes publikoko etxebizitzarik ez izatea, eta errenta, prestazio edo laguntza bateraezinek ez jasotzea.

- Etxebizitzaren errentatzailearekin edo errentatzailearen bizikidetzaren unitatearen edozein kidearekin odol- edo ezkontza-ahaidetasuneko hirugarren mailara arteko familia-loturarik ez izatea.

9. artikulua.– Eskaerak egiteko epea

2026ko apirilaren 15etik 2026ko maiatzaren 29ra arte, biak barne.

10. artikulua. – Izapidea eta ebazpena

Eskaerak egin diren hurrenkeraren arabera emango dira laguntzak (behar bezala bete badira eta espedientea osorik badago), aurrekontuan ezarritako zenbatekoa agortu arte.

Tokiko Gobernu Batzarra da ebazteko eskumena duen organoa.

11. artikulua. – Ordaintzeko prozedura eta justifikazioa

Dirulaguntza indibiduala izango da, hots, pertsona fisiko bakoitzak jasoko du.

Laguntza ordainketa bakarrean emango da, eskatzaileek eskaera-orrian adierazitako kontuan.

I. eranskina. Erantzukizunpeko adierazpena:

Anexo I. Declaración responsable:

Nire sinaduraren bidez, honako hau aitortzen dut:

Mediante mi firma declaro:

Eskariarekin batera emandako datu guztiak benetakoak dira.



Que todos los datos aportados junto con la solicitud son ciertos.

Alokairurako etxebizitzak eta nik, eskatzaile gisa, oinarrien hirugarren atalean agertzen diren baldintzak betetzen ditugu.



Que la vivienda sujeta al alquiler y yo, como solicitante, cumplimos los requisitos previstos en el apartado tercero de las bases.

Ez nago edozein motatako dirulaguntzak jasotzea eragozten didan inolako egoeratan.



Que no me encuentro incurso/a en ninguna circunstancia que me impida recibir cualquier tipo de ayudas.

Ez dut alokairua ordaintzeko beste dirulaguntzarik jasotzen, eta edukiz gero edo eskatu izanez gero, eskaera honetan adierazten dut:



Que no tengo reconocidas otras ayudas para el pago del alquiler, y si las tengo, o las he solicitado, informo de ello en esta solicitud:

Hirugarren mailarainoko odol- edo ezkontza- ahaidetasunik ez daukat etxebizitzaren errentatzailearekin edo errentatzailearen bizikidetzak unitateko edozein kidearekin.



Que no tengo vínculos familiares hasta el tercer grado de consanguinidad o afinidad con la persona arrendadora de la vivienda o con cualquiera de los miembros de la unidad convivencial de la persona arrendadora.

Bizikidetzak unitateko kide guztiak etxebizitzan erroldatuta daude dirulaguntzaren xede den aldian eta kontratuaren titularrak dira, (salbu eta egonez gero, emantzipatu gabeko adin txikikoak eta kontratuaren titular baten menpe dauden adin nagusikoak). Era berean, adierazten dut bizikidetzak unitateko kideak ez diren edota kontratuaren titularrak ez diren bestelako pertsonarik ez dagoela etxebizitzak horretan erroldatuta.



Que todas las personas que forman parte de la unidad convivencial constan empadronadas en la vivienda en el período objeto de subvención y son titulares del contrato (salvo los menores no emancipados y los mayores dependientes, si los hubiera, de alguna persona titular del contrato). Igualmente, declaro que en la vivienda no consta empadronada ninguna otra persona que no forme parte de la unidad convivencial o no sea titular del contrato.

Ez naiz jabetzako etxebizitzaren jabe eta ez dut gozamen- edota azalera-eskubiderik.



Que no soy propietario/a de vivienda en propiedad ni tengo derecho de usufructo o derecho de superficie.

Zamudio(n) _____

Eskatzailearen sinadura/firma del solicitante

